

Informazio-zirkularra: 2023/01

Hernani, 2023ko urtarrilaren 10a

ZERGA-ARLOA – 2023ko zerga-egutegia

Gipuzkoako Foru Ogasunak argitaratua du 2023ko zerga-egutegia. Zehazki, honako informazio hauek biltzen ditu: zerga-aitorpenak aurkezteko eta ordaintzeko epeak eta egunak, erabiltzen diren eredu ohikoenak, eta 2023ko aitopen aldizkako zein ez-aldizkako epeen mugak edo azken egunak.

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456431/2504148/2023+PosterCalendario+fiscal.pdf/45ce6aea-024f-55b1-4104-10d75a3b2595?t=1672158713437>

ZERGA-ARLOA – 2022ko 4. hiruhilekoko zerga-betebeharrak

Urtea amaitu zaigun honetan, 2022ko BEZaren eta atxikipenen urteko laburpenak egingo ditugu 2023ko urtarrilean; hortaz, eskertuko dizuegu ahalik eta datu gehien biltzen hastea.

Ekitaldia ixteko, garrantzitsua da zerga nagusiak aztertzea, enpresaren eta enpresariaren ikuspuntutik, zerga-betebeharrak betetzeari begira erabaki egokienak hartzeko.

KONTABILITATE-ARLOA

2022ko ekitaldia itxiko dugunez, jakinarazten dizuegu ekitaldi horretan sartu behar direla 2022ko abenduaren 31ra bitarteko kontabilitate-dokumentu guztiak, bidalitako eta jasotako fakturak eta 2022ko abenduaren 31ko datako inbentarioa.

ZERGA-ARLOA EGUNERATZEN – BEZ-A

BEZaren jaitsiera: BEZa jaitsiz, prezioen igoerari aurre egin nahi zaio, bereziki energiari eta elikagaiei dagokienez

Produktu freskoen BEZa kendu da (tasa murriztua zuten lehendik ere), eta %10etik %5era murriztu olioarena eta pastarena. Horri esker, beraz, oinarritzko eta behar-beharrezko elikagaien prezioa jaitsiko da, hau da, arestian aipaturikoez gain, ogia, esnea, fruta eta barazkiak ere merkatuko dira. Ekainaren 30era arte edo azpiko inflazioa %5,5etik behera ezarri arte mantenduko da zergen jaitsiera.

Horrez gain, 2023ko urte guztian eutsiko zaio elektrizitatearen BEZaren eta energia elektrikoaren gaineko zerga bereziaren jaitsierari, eta aldi baterako etenda geratuko da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, zerga-ekoizleek prezio lehiakorragoak eskaintzen jarrai dezaten.

Zenbait elikagairen BEZa kentzeak ez dakar jasandako BEZa kentzeko eskubidea galtzea.

Zure enpresak BEZaren jaitsierak eragindako produktuak merkaturatzen baditu, BRINTZAko profesionalak azalduko dizute nola jokatu behar duzun.

ZERGA-ARLOA EGUNERATZEN – ETXEBIZITZEN ALOKAIRUA

Alokairu-prezioen igoera mugatzeko epea luzatu da

Alokairuen prezioa gehienez ere % 2 igotzeko mugaren epea luzatu egin da: zure ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratua 2023ko ekainaren 30era artekoa bada, ezin dizute errenta igo, KPIa edozein delarik ere. «Krisiaren aurka» argitaratu diren neurri berrietako bat da.

Errenta ezin da igo % 2 baino gehiago

Alokairu-kontratu gehienetan, KPIa erabiltzen da erreferentzia gisa. Prezioak igo direnez eta joan den otsaileko KPIa % 7,6koa izan zenez, Espainiako Gobernuak **urteko % 2ko igoera mugatzeko** ezohiko neurri bat onartu zuen 2022ko martxoaren amaieran, 2022ko ekainaren 30era bitartean urte bat betetzen zuten kontratuetarako. Urte bukaerara arte luzatu zen neurri hori, eta, orain, Gobernuak iragarri du **berriz ere luzatuko duela errenten % 2ko igoera mugatzeko neurria**. Alegia, 2023ko ekainaren 30a baino lehenago urte bat betetzen duten alokairu-kontratuak eguneratzean, gehienez ere % 2ko igoera aplikatu ahalko da.

LAN-ARLOA EGUNERATZEN – 2023ko berritasunak

1. Kotizazio berria: belaunaldi arteko parekotasun-mekanismoa

2023ko urtarrilaren 1ean, indarrean sartu zen belaunaldi arteko parekotasun-mekanismoa (BPM), enpresek eta langileek aplikatu beharreko kotizazio berri bat.

Zertan datza berritasuna? BPMA ehunekoetan 0,6 puntuko kotizazio-igoera ezartzeko mekanismo bat da. Kontingentzia arrunten oinarriaren gainean aplikatzen da, Gizarte Segurantzaren sistemako alta-egoera edo altatzat harturiko egoera guztietan, baldin eta kotizatzeke betebeharririk badago erretiro-pentsioa ordaintzeko.

- Enpresek % 0,5 hartuko dute beren gain.
- Langileek gainerako % 0,1a ordainduko dute.

2. Gehieneko kotizazio-oinarrien igoera

2023an, kotizazio-oinarrien gehieneko kopurua hilabeteko 4.495,50 €-koa izango da, Gizarte Segurantzako erregimen guztietan.

Gutxieneko kotizazio-oinarriei dagokienez, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoeraren arabera igoko dira (2023koa ezarri gabe dago oraindik).

3. Langabezia-sariaren zenbatekoa igo da

2023ko lan-berritasun aipagarrienetako bat langabezia-sariaren kopuruaren igoera da: prestazioa jasotzen den 181. egunetik aurrera (hau da, zazpigarren hilabetetik aurrera), oinarri arautzailearen % 50etik % 60ra igoko da.

2023koa, beraz, honela geratuko da:

- Lehen sei hilabeteetan: % 70
- Handik aurrera: % 60

4. LAABeko kotizazio-oinarriak

Espainiako Estatuko 2023ko Aurrekontu Orokorretan jaso dira langile autonomoen araubide bereziko kotizazio-oinarri berriak. Honako aldaketa hauek dira aipagarrienak:

- Gehieneko kotizazio-oinarria hileko 4.495,50 eurokoa izango da.
- Kotizazio arruntei dagokienez, kotizazio-tasa % 28,30ekoa izango da; kontingentzia profesionaletan, berriz, % 1,30ekoa (% 0,66ko aldi baterako ezintasuna dagoenean eta % 0,64koa ezintasun iraunkorra, heriotza eta biziraupena dagoenean).

Egoera horretan, garrantzitsua da aipatzea LAABeko 11. eta 12. tarteetako gehieneko kotizazio-oinarriak eguneratu direla: 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, hileko 4.139,40 eurotik hileko 4.495,50 eurora igoko dira, hots, tarte horietan, gehieneko kuota hileko 1.266,66 eurotik hileko 1.375,62 eurora jasoko da.

Benetako diru-sarreraren kotizazio-oinarria kalkulatzeko orduan, norberaren konturako langileen (autonomoak) etekin garbien arabera izango da kuota.

5. Pentsioen balioa handitzea

2023an, pentsio publiko gisa jasoko den zenbatekoa ez da izango 2.819,18 euroren zenbateko osoari hileroko ehuneko igoera bat aplikatuta ateratzen den zenbatekoa baino altuagoa, kontuan izanda ehuneko igoera hori 2022ko abenduaren aurreko 12 hilabeteetako urtetik urterako aldaketa-tasen (KPIaren ehunekotan adierazita) batezbesteko balioaren berdina izango dela. Horrek ez du eraginik izango titularrari dagozkion aparteko ordainsarietan, eta ordainsari horietan ere aplikatuko da aipaturiko muga.

6. Langileak ez du baja medikorik eraman beharko enpresara

2023ko apirilaren 1etik aurrera, uztailaren 18ko 625/2014 ED aldatuko da, lehen 365 egunetan aldi baterako ezintasunei dagozkien prozesuak kudeatzeko eta kontrolatzeko zenbait alderdi zehazteari buruzkoa.

Hona hemen errege-dekretu berriaren aldaketa aipagarrienak:

- Baja- eta alta-agiriei dagokienez, kopia bakarra emango da, langilearentzat.
- Bigarren kopia desagertuko da.
- Langileak ez du baja-agiriaren kopiarik eraman behar izango enpresara.
- Agiriak ematen dituzten erakundeek eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren arteko komunikazioa telematikoa izango da.

7. Familien Legearen Aurreproiektuan iragarritako baimen berriak

Etorkizunerako aurreikusten den Familien Legean (oraingoz, aurreproiektua besterik ez da onartu), bizitza pertsonala eta profesionala uztartzeko hiru baimen berri onartuko dira:

- **Bost eguneko baimen ordaindu bat urtean**, ahaideak zaintzeko, ospitaleratzerik, istripurik edo gaixotasun larrikeriaz izanez gero, edo ebakuntza kirurgikorik egin behar izanez gero (2. mailara artekoak edo bizikideak).
- **Sei asteko baimen ordaindu gabea**, adin txikiko haurrak zortzi urte bete arte (segidan edo etenda). 2024an, zortzi astekoa izango da.
- **Lau eguneko baimen ordaindu bat urtean**, zaintza behar duten ahaideak zaintzeko.

Aurreproiektuaren testuan ageri dira baimen horiek, baina, hala ere, arretaz aztertu beharko da zer dioen BOEko behin betiko testuak.

8. LGSaren igoera posiblea (oraingoz, 2022koa luzatu da)

Zirkular hau argitaratu dugun egunean, lanbide arteko gutxieneko soldata 1.000 euroan izoztua dago (2022ko zenbateko berbera).

Oraingoz, hala jasotzen du abenduaren 27ko 20/2022 Errege Dekretu-Legeak (Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriak eta La Palma uhartera berreraikitze laguntza eta beste ahultasun-egoera batzuetan laguntza emateari buruzkoa):

«Elkarriketa sozialaren esparruan 2023ko lanbide arteko gutxieneko soldata zehazten duen errege-dekretua onartu bitartean, errege-dekretu horretan ezarritako baldintzen arabera eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 27. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, 2022ko lanbide arteko gutxieneko soldata zehazten duen otsailaren 22ko 152/2022 Errege Dekretuaren indarraldia luzatzen da».

Nolanahi ere, Espainiako Gobernuaren iturrien arabera, espero da soldata hori igotzea eta 1.030 eurotik 1.082 eurora bitartekoa izatea, hamalau saritan banatuta.

9. Erditu aurreko baimena eta hileroko mingarrietarako baja ordainduak

Sexu eta Ugalketa Osasunaren eta Haurdunaldia Borondatez Etetearen Legea aldatzen duen Lege Proiektuan, «erditu aurreko lan-baimen» bat sartu da, haurdunaldiaren

39. astetik aurrera. Printzipioz, baja automatikoki aplikatuko da, amatasun-baimeneko egunik galdu gabe.

Sexu eta Ugalketa Osasunaren eta Haurdunaldia Borondatez Etetearen Legean ezarriko den beste berritasun bat izango da hileroko mingarriak izanez gero baja ordaindua eskatzeko aukera (legea onartu eta argitaratu bitartean, medikuaren ziurtagiria beharko da).

Azken batean, aldaketa horri esker, aintzat hartuko da bigarren mailako ezgaitasuna eragiten duten hilerokoen ondoriozko egoera medikoetan aldi baterako ezintasuna eskuratzeko eskubidea.

Lan-kudeaketan aholkularitzarik edo laguntzarik behar baduzu, jar zaitez harremanetan BRINTZAko lan- eta gizarte-segurantzaren arloetako aditu profesionalekin.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-erreklamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste- eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.
